Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

1054

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 10ekoa, Herrizaingo Saileko Zerbitzu zuzendariarena, 995/08-1 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion espedientea (prozedura laburtua) Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegira bidaltzea xedatzen duena eta balizko interesdunei aipaturiko epaitegi horretan agertzeko dei egiten diena.

Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegiak, 995/08-1 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari (prozedura laburtua) dagokion espedientea bidaltzeko eskatu du. Funtzionario batek eta Euspel sindikatuak jarri dute auzi-errekurtso hori Segurtasun sailburuordearen 2008ko abuztuaren 26ko Ebazpenaren aurka. Izan ere, ebazpen horretan Giza Baliabideen zuzendariak 2008ko ekainaren 12an emandako Ebazpenaren aurka jarritako gorako errekurtsoa gaitzesten da. Azken horretan Segurtasun-zerbitzuko eginkizunak betetzeko zerbitzu-eginkizunen esleipen-prozedura arautzen da.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz, eta Herrizaingo Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko azaroaren 8ko 364/2005 Dekretuaren 7. artikuluan Araubide Juridikoaren Zuzendaritza honi esleitzen zaizkion eskumenen arabera,

EBATZI DUT:

1.– Eskaturiko administrazio-espedientea Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegira bidaltzea.

2.– Aipaturiko espedientean interesen bat izan dezaketenei dei egitea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta bederatziko eguneko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegian ager daitezen euren bidezko interesen alde egiteko.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 10a.

(Araubide Juridikoko zuzendariaren ordez. 2008ko martxoaren 11ko Agindua).

Zerbitzu zuzendaria,
JOSEBA IÑAKI GURTUBAI ARTETXE.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

1054

RESOLUCIÓN de 10 de febrero de 2009, del Director de Servicios del Departamento de Interior, por la que se dispone remitir al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Bilbao el expediente relativo al recurso contencioso-administrativo, procedimiento abreviado n.º 995/08-1 y se emplaza a los posibles interesados para que puedan comparecer ante dicho Juzgado.

Por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Bilbao ha sido requerida la remisión del expediente administrativo relativo al recurso contencioso-administrativo, procedimiento abreviado n.º 995/08-1, interpuesto por funcionario de la Ertzaintza y por el Sindicato Euspel, contra la Resolución de 26 de agosto de 2008, del Viceconsejero de Seguridad, por la que se desestima el recurso de alzada interpuesto contra la Resolución de 12 de junio de 2008, del Director de Recursos Humanos, reguladora del procedimiento para la concesión de comisiones de Servicio para la realización de funciones del servicio de seguridad.

De conformidad con lo preceptuado en el artículo 49 de la Ley reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, y en virtud de las competencias atribuidas a esta Dirección por el artículo 7 del Decreto 364/2005, de 8 de noviembre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior,

RESUELVO:

1.– Remitir el expediente administrativo solicitado al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Bilbao.

2.– Emplazar a los posibles interesados en el referido expediente para que en el plazo de 9 días, contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Bilbao en defensa de sus legítimos intereses.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de febrero de 2009.

(Por suplencia de la Directora de Régimen Jurídico. Orden 11 de marzo de 2008).

El Director de Servicios,
JOSEBA IÑAKI GURTUBAI ARTETXE.